

**1/2020 TXOSTENA, MARTXOAREN SEKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA.****XEDEA: ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN ZIRRIBORROA: ZERBITZU-KONTRATUA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA.****I.- AURREKARIAK.**

Indarrean sartu da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Ondorioz, orain arte nahitaez sartu behar ez ziren alderdi batzuk sartu behar dira baldintza-agirietan, eta, halaber, berriro definitu behar dira aztertzen ari garen prozedurako izapide eta figura batzuk eta kontratu mota.

Era berean, kontuan hartu behar dira, eta ahal den neurrian baldintza-agirien eruedetan jaso, kontratuen inguruko errekurtsoen auzitegi administratiboen ebazpenak eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bereziki Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpenak, bai eta autonomia-erkidegoko, Estatuko eta, batez ere, Europar Batasuneko jurisprudentzia ere, etengabe baitabilta interpretatzen Europako zuzentaruak eta haien ondorio eta transposizioak.

Beste alde batetik, kontratua prestatzeko egintzak kontratatzaile-profilean argitaratzeari dagokionez, hor ere izan dira aldaketak, eta, batez ere, gehikuntza berriak: baldintza-agiriak lagungarri izan daitezke hori gogoratzeko.

Horregatik prestatu da esku artean dugun Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren zirriborroa, zeinari buruzko txostena egingo baitu batzorde honek.

II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK. TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren zirriborroari buruzko txostena emateko eskumena du Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 4. apartatuan xedatutakoari jarraikiz.

Dekretu horren 30. artikulua araber, Aholku Batzordearen osoko bilkurari dagokio dokumentu horren gaineko txostena emateko eskumena.

III. – EDUKIA.

Eduki hau du testuak: Kontratuaren klausula bereziak, baldintza orokorrak eta eranskinak.

Halaber, hiru multzotan egituratzen dira kontratuaren klausula bereziak: Prestazioaren ezaugarriak, adjudikazio-prozeduraren ezaugarriak eta beste zehaztapen batzuk.

Kontratuaren baldintza orokorrak honela daude banatuta: Kontratuaren xedea eta gai orokorrak; lizitazioa; gutun-azalak irekitzea eta eskaintzak balioztatzea; kontratua esleitzea eta formalizatzea; kontratuaren exekuzioa; azkentzea; eta gorabeherak eta egintzen berrikuspena.

Azkenik, kontratazio-prozesuan laguntzeko zenbait eranskin ere badaude, hauek argitze aldera: agiriaren alderdi jakin batzuk prestatzeko behar den informazioa; gutun-azal bakoitzean zer dokumentazio sartu behar den eta eskaintza onena duen lizitatuzaileak edo kontratuaren exekuzio-fasean dagoen kontratistak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

IV.- OHAR JURIDIKOAK.

Baldintza-agiriaren proposamen honetan errespetatu den arau-esparrua Europar Batasuneko kontratazioaren arloko zuzentarauak dira (ikusiko dugun bezala, haien transposizio partziala egin da), eta zuzentaru horietako printzipioak izan beharko dira kontratazioarako baldintza-agiri guztien oinarria. Hauek dira: 2014/23/EB Zuzentaru, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuen adjudikazioari buruzkoa; 2014/24/EB Zuzentaru, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena 2014ko otsailaren 26koa, Kontratazio Publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaru indargabetzen duena; 2014/25/EB Zuzentaru, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EB Zuzentaru indargabetzen duena.

Testua bat dator SPKLk agindutakoarekin eta lizitazio publiko bat prestatu eta argitaratzeko behar diren pleguak egiteko xedatutakoarekin. Bereziki garrantzitsua da SPKLren 159. artikuluan ezarritako erregulazio zehatza.

Halaber, SPKLk indargabetzen ez duen guztian, errespetatu egiten da 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.



Era berean, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuarekin bat dator, indarrean dirauen guztian; bereziki, abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretua onetsi zenez geroztik, zenbait manu aldatu baitzizkion Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrari (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia).

Kontratazio publikoan eragina duten lege- eta erregelamendu-xedapen hauek ere kontuan hartu dira:

- 2/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Espainiako ekonomiaren desindexazioarena.
- 55/2017 Errege Dekretua, otsailaren 3koa, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatu eta administrazioa eraberritzeko beste zenbait neurri buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, segurtasun publikoko arrazoiak direla-eta administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan premiazko neurriak hartzen dituena.

V.- ONDORIOAK.

Hori guztia kontuan hartuz, aldeko txostena ematen zaio Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren zirriborro honi: zerbitzu-kontratua, ireki sinplifikatua prozedura. Izan ere, egokituta dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legera (9/2017 Legearen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora) eta aipatutako gainerako araudira.